

## **KANALAK**

Komunikazio-kanalak funtsezkoak dira gure negozio ereduan, gure aplikazioarekiko pertzepzioa oso garrantzitsua da, horrekin bezeroak erakarriko ditugu eta. Gure aplikazioa jendearengana gerturatzeko publizitateaz baliatuko gara, baita ere sare sozialak erabiliko ditugu gaur egun gizartearekiko eta gazteriarekiko gertu egoteko modurik errezena delako eta produktiboena aldi berean. Lehendabizi sare sozialak sortuko ditugu, konkretuki, marketing ikasketak dituen aditu batek prestatuko ditu sare sozialekin zerikusia dituzten gauza guztiak, behin jende nahikorengana heldu garenean, publizitatea telebistaren bitartez sortuko dugu jende gehiagorengana heltzeko, hau da, sare sozialak ez dituen jendearengana heltzeko.